

Eskarmentua dugulako,
zaindu zure osasuna

Pneumokokoaren
aurkako txertaketa



Eskarmentua dugulako, *zaindu zure osasuna*



Pneumokokoaren aurkako txertaketa

Zer da pneumokokoak eragindako infekzioa?

- Biriketan (pneumonia) eta odolean (bakteriemia) kalteak edo meningitisa ere eragin dezakeen bakterioak eragindako gaixotasuna. Pneumokoko mota asko dira.
- 65 urtetik gorakoetan edo gaixotasun kroniko jakin batzuk pairatzen dituztenetan, pneumokokoak konplikazioak edo gaixotasun larria eragin ditzake.

Nolakoa da txertoa?

- Txertoak 23 pneumokoko motaren aurka babesten du, eta hauen artean daude gure inguruan ohikoena direnak.
- Txerto hau segurua da eta bigarren mailako efektuak ez dira ohikoak, aldi baterakoak baizik eta, oro har, injekzioaren gunean agertzen dira.
- Injekzio bidezko txertoa da eta, oro har, dosi bakarra eskatzen du.

Nork hartu behar du txertoa?

1. 65 urte edo gehiago dituzten guztiek.
2. Gaixotasun kroniko serioa edo gaixotasun imunologikoa pairatzen duen 2 urtetik gorako edonork, betiere medikuak hala aginduta.

Non egingo da txertaketa?

- Osakidetzako osasun-zentro eta anbulatorio guztietan.
- Txertoa hartzera joan aurretik, eskatu hitzordua zure osasun-zentroan.